

Behiak ukuilueta, ez esnea eta simaurra ekoizteko fabriketan

1.000 behi gehi 800 bigantxa gehiago aterpetuko dituen granja-fabrika erraldoia geldiarazi nahi dute Frantziako Estatuko nekazariak. Tamaina horretako bat bada, Nafarroako Caparroson. Eta Indian 40.000 behirentzakoa eraiki nahi dute multinazionalak. Nekazariak erakusten digute zer ezkutatzen duen esne merkeak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

1.000 VACHES DEITZEN ZAIE, nahiz eta mila behi baino gehiago eduki ditzaketen eraikin erraldoiak. Bat Nafarroako Caparroson daukagu, 1.800 behi dauzkan eta 4.000 taraino zabaldu daitezkeen... ukuilua? Fabrika esan beharko hobe. Frantziako Estatuko iparraldean, Amiens inguruko Drucat herrian, Michel Ramery industrialak eraiki duen behitegitzar horietakoa okupatu eta zenbait tresneriaz hustu zuten joan den maiatzean Confederation Paysanneko laborari militanteek. Polizia, ministroarekin eztabaida, arduradunen atxiloketa, epaiketa saioa joan den astea... Confeko sindikalistek herritarrei mahaietaraino eramane diete hipermerkatuetan hain merke erosten duten esnearen sekretu itsusia.

Euskal Herriko Laborarien Bata-suna (ELB) barne duen sindikatuko idazkari nagusi Mikel Hiribarrenek Laborari astekarian "Laborantzan industriaren ixuria" artikuluan eman ditu erasotutako mega-behitegiaren xehetasunak. Confek bere webgunean gaia grafikoki azaldu du: "Aujourd'hui parlons de la ferme de 1.000 vaches et analysons cette usine à gaz" (Gaur 1.000 behiko etxaldeaz mintzatuko gara eta analizatuko gas fabrika hau). Harrigarriak dira gas usina hauek, bai.

8.500 metro karratu osatzen dituzten eraikinetan biziko diren 1.000 behiok egunero 27.000 litro esne emanen dute, langileek (denak emakumeak) egingo dizkieten lau jeitzialdietan. 160.000 litro ur xahutuko du granjak egunero. 100 tona bazka ekarriko zaie behiei bertaraino, hauek esneaz gain 73.000 kilo simaur egin dezaten.

Simaurrean datza usinarene gako ekonomikoetako bat. Behien gorotzak bestelako landare inaurkinekin nahastuta metanoa ekoiztiko dute, horri errez argindar bihurtzeko 1,5 MegaWatteko ahalmena daukan zentrallean. Energia berdea deitzen zaion horri, antza, Frantzia oraindik prima onak ematen zaizkio; Espainiako Estatuan gorotzekin energia sortuz negozioa egin nahi zuten eta murrizketekin ahoa bete hortz geratu direnek baino zori hobea dute.

Simaurreak metanizatzearen ondoren geratzen diren hondakin organikoak inguruko 3.000 hektareatan zabaldu nahi ditu industriak. Honek eragin ditu Somme ibarrean ingurumenaz kezkatzen direnen kexuak, lurpeko ur erreserbak are nitrato gehiagoz kutsatuko direlako.

Ingurumenarenari osasunarekiko arrangura gehitu behar zaio. Horrelako pabilioetan behi bakoitzak ez

Proiektuaren kontra borrokatzen den Novissen elkarteak bere webgunean ipinitako irudian, Somme eskualdean eraiki nahi duten behitegi erraldoiaren kontra protestan ari den herritarra. Mila behi baino gehiagoko esne eta simaur fabrika salatzen duen "1000 vaches" esaldiaren ondoan, ikurrak erakusten du behi bat errauskailu bihurtua. Cironline webgunetik hartutako argazki txikian, behitegi handi horietako baten jeitzeko plataforma robotizatua. Horrelako bat dagoeneko martxan dago Nafarroako Caparroson. Nekazaritza industrialaren sustatzaileek sistema hau ezarri nahi dute mundu osoan. Europaz eta Amerikaz gain, dagoeneko instalazioak badaude Txinan, Vietnamen eta Indian. Denetan ugaritu dira horien kontrako kanpainak, ez dago Interneten "mega-dairy" (esne fabrika erraldoia) galdetu besterik. 2011n Britainia Handian 4.000 behi eduki behar zituen bat gelditzea lortu zuten.

daukanez beretzat auto batek parkingean eskaintzen zaion lekuaren erdia ere, egun argirik eta aire liberrik ezagutu gabe iraungo duten azien-dak bizirik atxikitzeako antibiotikoz eta bestelako botikaz ase behar dituzte. Gero herritarrok horien esneak eta okelak irentsiko ditugu.

Behiok esneaz gain kaka barreiatuko dute inguruetan. Aldiz, horien elikatzea urrundik ekarriko da. Erdia baino gehiago Hego Ameriketatik, pestizidaz ondo igurtzitako OGM bihi eta pentsuak. Ordainetan, esnea ere munduko lau haizeetara zabalduko da, lortuko diren prezio apalen babesean. Hurbileko bezala urrutiko baserriak hon-doratzeko sistema.

"Hona merkatuko esne merkeena"

Behi asko, esne asko, simaur asko... eta langile gutxi: 18 langilerekin mugituko du fabrika Ramery ugazabak. Dagoeneko baserri txiki gehienak galdu dituen Frantzia gaur esnea 50 behi inguruko etxaldeetan ekoizten da, bakoitzean batz bestea 2,1 langileri enplegua emanez. 1.000 behi zaintzeko beharko lirakeen 42 nekazarien orde 18 langile ez-kualifikatu eta oso gutxi ordainduak kontratatuko ditu Rameryk.

Hala ere, prezioan nahi du konpetitu Rameryk, jakinik kaletarrek



azkar ahazten dituztela hedabideetan tarteka-marteka aipatzen diren kutsadurak, kalitateak, injustiziak eta istorio. Orain Frantziako Estatuan tona bat esne ekoiztea 350 euro kostatzen bazaio behitegi baten jabeari, Rameryk 270ean produzituko du. Nolaz? Kopuru eta tamaina erraldoiek eragiten dituzten eskalako ekonomiak baliatuz, subentzio handiak kobratuz, langile urriei soldata kaskarrak pagatuz eta, azkenik, “energia berdeari” etekina ateraez.

“1.000 behiko usina hau test bat da –salatu du Cofederation Paysannek–. Hau gelditzen ez baldin badugu, laster antzekoak aurkituko ditugu Frantzia osoan, gaur esne ekoizpenak dauzkan 100.000 enple-

guei mehatxu eginez”. Eta arrazoi du. Dagoeneko Europako leku askotan antzeko granja alimalekoak nagusitu dira, etxalde txikiak hondoratuz. Zer esanik ez Ipar Amerikan. Eta Asian...

Indiatik iritsi da markak hautsi nahi dituen hurrengoaren albisteak: Andra Pradesh estatuan multinazionalak eraiki nahian ari direla ukiulu erraldoi bat... 40.000 behirentzako! Indiako Iffco ongari korporazioa eta Zelanda Berriko Fonterra esneki multinazionala –Txinan melaminaz kutsatutako esne hilgarria ekoiztu zuena, bide batez esanda–daude asmoaren sustatzaile, oraindik gairitu ezinean kontra agertu zaizkien taldeen indarra.

Indiakoa argitu bitartean, munduko behi eta esne ekoizpen konplexu handiena Vietnamen dauka Afimilk korporazio israeldarrak. Eguneko 200 tona esne ekoizten zituen 2012an eta 2015erako helburutzat dauka urtean 300.000 tona merkaturatzea. Horretarako dauzka bere estalpeetan bildurik 11.000 behi eta 12.000 bigantxa, denetara 23.000 azienda! Afimilk konpainia bi zangoren gainean dago eraikita, biak ere Israelgoak: Afikim kibbutza eta Fortissimi Capital inbertsio funtsa.

Industriak eta finantzak aspalditik nahi du kontrolatu giza elikatzearen kate osoa. Mikel Hiribarrenek idatzi duenez: “Ez da atzo ala herenegun abiatua laborantzan industriaren ixuria. Badugu nahiko etsenplu hementxe berean Euskal Herrian. Batzuen zoroaldiek zenbat itzal ez dute ekartzen hainbeste etxalderi, edo berdin produkzioe sail osoari!”.

Frantziako Drucaten behi fabrika eraikitzen duen Ramery herrialde horretako 369. gizon aberatsena da, 120 milioi euroren jabea, herrilanean dirua egindakoa. Alde dauzka agintari publiko gehienak, FDSEA nekazaritzako sindikatu maioritario buruzagia ere bai. Nekazaritza lehiakorraz mintzo dira denak... gero lurjabe handi eta industrialak direnean Europako dirulaguntza gehienak metatzen dituztenak.

Uztailaren 1ean epaitu behar zituzten makro-behitegia okupatu zuten Confeko sindikalistak. Urrira atzeratu dute auzia. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira